



GOBERNU BATZARRA
2023.11.07

Alkatea: Angel Martinez de Rituerto Arregi	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko azaroaren zazpian, 10:00etan, bigarren deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:
Bertaratutako zinegotziak: Kristina Pelaez Errazkin Aitor Agirresarobe Murgi	
Ez dira bertaratu: Ander Figuerido Zubiria Goiuri Ezeiza Arandia Estitxu Kortejarena Ugarte	1. Akta hau onartzea: 2023ko urriaren 24koa.
Idazkaria: Begoña Garmendia Vazquez	2. Onartzea Tolosako udala 341/2023 administrazioarekiko auzi-errekurtsioan alderdi demandatu gisa agertzea.
Kontuhartzaile akzidentala: Paulino Alonso Eraso	3. Dekretu honen berri ematea: 2023/2343 Dekretua: 2023/47 faktura zerrenda.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2023KO URRIAREN 24KOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA TOLOSAKO UDALA 341/2023 ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSIOAN ALDERDI DEMANDATU GISA AGERTZEA.

Ibai Rosa Iturriak Donostiako Administrazioarekiko 1 zenbakidun epaitegian, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri du honako erabaki honen aurka: Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko urriaren 20an onartutako 2020ko Lan eskaintza Publikoa, barne sustapenari dagozkion lau plazei buruzkoak. Auziaren muina modu honetan laburbiltzen da:



A) 2020KO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA.

1. Tolosako Udaleko Tokiko gobernu-batzarrak 2020ko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu zuen urte horretako urriaren 20ko bilkuran.
2. Onartu aurretik, Eskaintza Udaleko langileen ordezkariekin negoziatu zen.
3. Eskaintza horretan, administrazio orokorreko administrarien lau lanpostu barne hartu ziren, barne-sustapeneko sistemaren bidez bete beharrekoak. Era berean, eskaintzak beste plaza batzuk hornitzea aurreikusten zuen, guztiak sarrera ireki bidez.
4. Aipatu erabakiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2020ko azaroaren 11n, baita egun bereko EHAAren ere.
5. Erabakia ez zen legez ezarritako epeetan aurkaratu, ez administrazio-bidean, ez administrazioarekiko auzi-errekurtso bidez, eta, beraz, irmo bihurtu zen.

B) 2022AN BARNE-SUSTAPEN BIDEZ LAU ADMINISTRARI HAUTATZEKO PROZESUA ARAUTZEKO OINARRIAK.

1. Tolosako Udaleko Tokiko gobernu-batzarrak Administrazio Orokorreko lau administrari plaza betetzeko deialdia eta berariazko oinarriak onartu zituen 2022ko apirilaren 12ko bilkuran.
2. Prozedurak, Tolosako Udaleko karrerako funtzionarioentzat gordeta zegoenak, aukera ematen zuen Administrazio Orokorreko eta Administrazio Bereziko funtzionarioek parte hartzeko (sustapen gurutzatua), bai sailkapen-talde edo azpitalde berekoek, bai hurrengo talde edo azpitaldekoek (sustapen horizontala eta bertikala).
3. Erabaki horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2022ko apirilaren 27an, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean 2022ko maiatzaren 4an (iragarki-laburpena). Oinarri arautzaileak Tolosako Udalaren webgunean ere argitaratu ziren 2022ko maiatzaren 4an bertan.
4. Bi akordio horiek langileen ordezkariekin negoziatu ziren, eta halaxe jasota dago horretarako izapidetutako espedienteetan eta akordioen testuan bertan.
5. Erabaki horiek ez ziren legez ezarritako epeetan aurkaratu ez administrazio-bidean, ez administrazioarekiko auzi-errekurtso bidez, eta, beraz, irmo bihurtu ziren.
6. Prozesua amaituta dago gaur egun. Aurkeztutako hiru hautagaietatik bi onartu ziren. Oposizio-fasea eta lehiaketa-fasea amaitu ondoren, bi hautagaik gainditu



zuten hautaketa-prozesua, eta izendatuak izan ziren. Laburbilduz, barne-sustapen bidez lau plaza deitu baziren ere, bi baino ezin dira bete, hau da, sistema horren bidez deitutako plazzen % 50.

C) OFIZIOZKO BERRIKUSPENA

I.R.I. jaunak, Udalak hartu zituen bi erabaki horien ondorioz (2020 Lan Eskaintza Publikoaren onarpena eta lau administrari barne sustapenez hautatzeko deialdia) , 2022ko uztailaren 27an idatzi bat aurkeztu zuen akordio hauen deusezetasuna eskatuaz. Udalak bere aldetik, ofiziozko berrikuspen espedientea izapidetu zuen eta honen emaitza, ofizioz berrikusteko eskaera ez onartzea izan zen, guztia Euskadiko Aholku Batzorde juridikoak emandako irizpenaren baitan.

Hau guztia kontuan hartuta, uztailaren 13ko 28/1998 Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legea jarraituz eta, udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Tolosako udala 341/2023 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan alderdi demandatu gisa agertzea.

BIGARRENA.- Erabaki hau prozeduran interesdun gisa agertzen direnei jakinaraztea eta bederatzi eguneko epea ematea, errekurtso honetan demandatu gisa pertsonatzeko aukera emanaz.

HIRUGARRENA.- Tolosako Udala ordezkatu eta defendatzeko honako abokatuak izendatzea: Javier Hernaez Manrique eta Leire Lertxundi Beristain.

3. DEKRETU HONEN BERRI EMATEA:

2023/2343 DEKRETUA: 2023/47 FAKTURA ZERRENDIA.

Idazkariak 2023/2343 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko ESTITXU KORTEJARENA UGARTE andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioko Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak



arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta 2023ko uztailaren 6ko 2023/1718 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2023ko honako faktura-zerrenda hau:

47. zenbaki duena, 292.130,48 eurokoa.

Zerrenda honetan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- *Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

47. zenbaki duena, 292.130,48 eurokoa.

BIGARRENA.- *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkaria naizen honek, ziurtatua, Tolosan sinaduran agertzen den datan

Nire aurrean,

Zinegotzi delegatua

idazkaria

Estitxu Kortejarena Ugarte

Begoña Garmendia Vázquez



TOLOSAKO
UDALA

2023IGBA0022

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 10:30ean.

ALKATEA

IDAZKARIA

Plaza Zaharra, 6A - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 44 66 - Faxa: 943 69 75 10 - e-mail: udate@tolosa.eus

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU332af1e9-08d5-4c7e-b6be-66afbc3683b3**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023IGBA0022-2023-11-07 Gobernu batzarra/2023-11-07 Gobernu batzarra ()